



## 25 URTE KULTURA ERAIKITZEN

Ondarearen  
Europako  
Jardunaldiak

## 25 AÑOS CONSTRUYENDO CULTURA

Jornadas  
Europeas del  
Patrimonio



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

2025eko edizio honetan, Ondarearen Europako Jardunaldiak arkitekturaren eremuan murgilduko gaitu, bere eraikin eta eraikuntzen bidez.

Arkitektura betidanik eta leku guztietan egon da lotuta gizadiaren garapenarekin. Horri esker, gure eguneroko jarduerak garatu ditzakegu, arkitekturari ematen zaizkion erabilera-mota desberdinen bidez: garraioan, kultura eta ikuskizunetan, etxebizitzan, irakaskuntzan, jarduera instituzionalean, zerbitzuetan, lantoki eta ekoizpen-guneetan, espazio publikoetan, obra zibilean eta azpiegituretan...

Edizio honetan, ahalegin berezia egin nahi dugu bi norabidetan. Alde batetik, azken ehun urteetan eraikitako eraikuntza nabarmenak sartu nahi ditugu. Hau da, mugimendu modernoaren korrontea, edo, zentzu zabalagoan, arkitektura garaikidea izendatu den hori aztertu nahi dugu. Gure inguruan korronte horren aparteko adibideak ditugu, nahiz eta beti ez diren behar bezala ezagutzen edo aitortzen. Gauza bera gertatzen da gure auzoetako arkitektura eta hirigintzarekin. Alderdi horiek erabakigarriak izan dira gure lurraldearen sare soziala eratzeko orduan eta, hala ere, batzuetan, ekintza dibulgatzaile hauetatik kanpo geratzen dira. Bestetik, bereziki erreparatu nahi diegu azken urteetan eraikin historikoetan esku hartzeko garatu diren proiektuei. Kontuan hartu behar da, gainera, bide horretan eraikin historikoen erabilerak aldatu egin direla eta esku-hartzeon inguruan jarraitutako irizpideen inguruan eztabaida saihestezinak egon direla.

Halaber, arkitektura hauek hurbiltzeko modu berriak ere txertatu nahi ditugu datorren urrirako programatuko diren jardueren bidez. Horretarako, hain beharrezkoak diren formatu dibulgatzaile tradizionalaz gain (besteak beste, konferentziak, eraikinetara bisita gidatuak, ibilbideak eta erakusketak), beste formatu batzuk gehituko ditugu, gertaera arkitektonikoaren inguruko ikuspegi zabalagoa eta dinamikoagoa eskaini eta jardunaldia biztanleriaren profil zabalago batera hurbiltzeko. Hona hemen adibide batzuk:

- Bisitak eraikuntzaren sektoreko ekoizpen-zentroetara, bertako prozesuak aurrez aurre ezagutzeko: lantegiak, tailerrak, harrobiak...
- Eraikuntza-teknika tradizionaletan adituak diren artisauen partaidetza: harriaren lanketa, beira, forjaketa, ebanisteria...
- Maketa eta marrazketa arkitektonikoen tailerrak.
- Arkitekturako argazkien tailerrak eta lehiaketak.
- Gure lurraldeko arkitekturarekin lotutako ikus-entzunezko proiektzioak.
- Eztabaidak arkitekturako profesionalen artean ondarea zaintzeko ideien inguruan.
- Jarduerak ikastetxeetan, udalerrietan erabiltzen ez diren eraikinak berrerabiltzeko ideiak proposatuz, beren eraikin gogokoenen gida arkitektonikoak eginez edo beren ikastetxearen arkitektura aitortuz.
- Haurrentzako joko eta tailerrak, gure ondare arkitektonikoaren zehaztasunak deskubritzeko.
- Eraikin bat bilatzeko pista-jokoak.
- Indusketa arkeologikoetako partaidetza.
- Bisitak zaharberritze-prozesuetan dauden eraikinetara.
- Musika-ikuskitunak edo antzezlanak arte eszenikoetakoak ez diren espazio eta eraikinetan.
- Kirol-ekitaldiak espazio berezietan, besteak beste frontoi, arkupe edo elizpeetan.
- Desagertutako ondare arkitektonikoa gogoratzeko jarduerak.
- Auzoen bilakaerari buruzko istorioen kontaketa bertako biztanleen eskutik.
- Gonbidapena artistei, ondare arkitektonikoan inspiratutako lanak sortzeko.
- Gaueko ibilbide arkitektonikoak, argiztapen artifizialaren giroa jasotzeko.
- Errealitate birtualeko esperientziak, eraikin historikoen bilakaerara aplikatuta.
- Horma-irudi komunitarioen proiektuak, inguruko ondare arkitektonikoa jasotzeko.
- Errezeta tradizionalak sustatzen dituzten gastronomia-ekitaldiak edo inguruko ondare historikoari lotutako garaiko arropen birsorkuntzak.
- Ibilbideak praktika arkitektoniko jasagarrietatik.

Hartara, jardunaldion gaineko ikuspegia hedatuz eta inplikaturako agente guztien lankidetzara edukita, urrats bat gehiago emango dugu abentura dibulgatzaile zirrargarri honetan, etorkizunera joateko iraganera begiratuz eta gure ondare arkitektonikoak aurrean dituen etorkizuneko erronkei buruz hausnartzeko ikuspegi berriak sortuz.

